

IRAULTZA INDUSTRIALA ABIATU EZINIK.

Euskal Herriko Ekonomiaren gorabeherak Lege Zaharraren kinkan (1778-1880)

Joseba Agirreazkuenaga,
Gaiak, Bilbo, 1993

Hona hemen Joseba Agirre-azkuenagak epe laburrean euskaraz eskaini dugun bigarren liburua. Izatez, aurrekoaren bigarren partea litzateke, *Uztaro*-ren azken alean aipatutako **Gerra eta pakea: Politikagintza Lege Zaharraren krisialdian** liburuarena hain zuzen ere, GAIK argialetxeak plazaratua. Lehenen-goak Euskal Herriak XVIII. mendearen bukaeralditik XIX.eko hirugarren laurdeneraino jasan zituen gizarte- eta politika-aldaketak aztertzen bazituen, bigarren honek garai bereko gure herriko ekonomi egituren ete berauen aldaketen analisisa aurkezten digu.

Joseba Agirreazkuenaga Hego Euskal Herrian euskaraz idazten duten historialarien artean ezagunena da. EHUko Historia Garaikidea saileko partaide, Gizarte eta Informazio Zientzien fakultatean irakasten du; honetaz gain, bere garaian UEUko Historia sailburua izan zen, eta aspalditik Eusko Ikaskuntzako kargu desberdinetan dabil. Bere lehenengo ikerkuntza-lanak batez ere Bizkaiko eta Euskal Herriko XIX. mendeko ekonomi historiarekin erlazionatuta egon baziren, azken aldi honetan garai bereko gizartea eta politikagintza ditu aztergai nagusi, ardatza beti ere euskal mundu tradizionalaren krisi eta aldaketa-prozesuak direlarik.

Komentatu nahi dugun liburuaz azpimarratu behar dugun lehenengo gauza, jakina bada ere, euskaraz idatzia dagoela da. Ez da tontakeria bat. Horrelako liburuak behar-beharrezkoak ditugu, euskal historialaritzaz aurrera atera nahi badugu behintzat. Historialaritzak eta historiaren irakaskuntzak zerbaiten premia badu, dudarik gabe euskaraz pentsatutako eta idatzitako testu zientifiko eta eskuliburuena da. Ekonomi historiaren azpiarloan mugitzen garenontzat beharra handiagoa dela esango genuke, ia dena egiteke baitago, ikasleek ondo dakiten bezala. Alde honetatik gure liburuak betetzen duen esparrua, hortaz, funtsezkoa litzateke.

Lan hau zazpi ataletan zatitua dago, ondorio labur batzuekin batera zortzi bihurtuko liratekeelarik. Lehenengoan, "Euskal Herriko egitura ekonomikoak Lege Zaharraren amaieran" izenekoan hain zuzen ere, hurrengo kapituluetan azalduko dituen aldaketa *bateriaren* nolabaiteko aurrebaldintzak edo abiapuntuak aurkeztu nahi dizkigu, Antzinako Erregimena bukatzeaz zegoeneko euskal ekonomiaren (eta, hortaz, gizartearen) oinarri tradizionalak gainbegiratu, krisiaren hasierarako hautatzen duen data enblematikoaren

inguruan alegia (1778, Amerikarekiko merkataritza-askatasunaren espainiar dekretuen urtea, Euskal Herriko portuak aipatzen ez zituen). Hurrengoetan, liburuaren mamia osatzen dutenetan, sektorial bilakatzen da azterketa, nolabait esanda: bigarren atalean euskal imajinarioan tradizioaren ikur bezala finkatu zen nekazal munduan emandako joera eta aldaketak ukitzen ditu; hirugarren eta laugarren ataletan, ordea, modu laburragoan, lehenengo arloko beste iharduera nagusietan, hots, arrantzan eta burdin meagintzan gertatutakoa azaltzen digu. Bostgarrena, "Protoindustriatik Iraulza Industrialaren abiada arakatzen eta urratzen (1789-1876)", liburuko *jaki sendoa* litzateke: bigarren arloaren abiada industrialpenerantz eta, azken finean, honek izan zituen oinarri, oztopo eta herrialdez-herrialdeko desberdintasunak azaltzen ditu; ezin dugu ahaztu Euskal Herriaren aurpegia eta arima aldatu zuten indarrek bere jatorria industrian emandako aldaketetan dutela eta indar hauek XIX. mendearen azken laurdenetik aurrera finkatu zirela, Bizkaiari eta Gipuzkoari zegokienean behintzat. Aldaketa hauek ez ziren sektore honetan isolaturik eman, eta hala azpimarratzen du Agirreazkuenagak aurreko eta ondorengo atalekin, baina ez da harritzekoa azalpenak eta, noski, oraindik erantzun gabeko galdera gehienak gai honetan kontzentratzea. Azken finean XIX. mendea eta Industri Iraulza azterten duten ekonomi historialarien galdera klasikoak planteiatzen zaizkigu: zergatik leku batzuetan bai, beste leku batzuetan porrot egin bazuen? Zergatik mementu honetan eta ez beste honetan? Zergatik erritmo hau eta ez beste hura? Agirreaz-

kuenagaren erantzunak, liburu honetan, batipat gizartean zentratzen badira ere, bere aniztasuna eta elkarren arteko erlazioa ez dugula ahaztu behar gogorarazten digu egileak: azalpen monokausalen garaia pasatu dela, alegia. Seigarren eta zazpigarren atalak, laburragoak hauek ere, beste bi puntu osagarri ukitzen dituzte: alde batetik, merkataritza tradizionalaren krisialdia eta irtenbideak, eta komunikabideen garapena (batez ere errepidegintza, Agirreazkuenagak ondo ezagutzen duen gaia, eta trenbide-sarea) eta, bestetik, sektore publikoa, hau da, Foru erakundeek herrialdeetako ekonomietan izan zuten eraginaren lerro nagusiak. Liburuak koadro, mapa eta batez ere irudi kopuru nahikoa handia du, batzuk oso adierazgarriak gainera; tamalez, batzuetan argazkien oinak ez dira guztiz egokitzen testuan esaten denarekin.

Gaiak eta garaiak liburu bat merezi zuten, azken urteotan egindako ikerkuntza barreiatuaren topagune bezala edo. Euskal mundua erabat aldatzen ari zen mementu hau, istiluz beteta, gehiegi aztertu izan da politika-eta erakunde-arloen eta arlo militarren aldetik, mendearen azkenengo laurdenetik eztanda egingo zuen industri mundu berriaren "prestakuntza" izateko baitzen. Ahalegina euskaraz egiteak, gainera, aipatu dugun bezala, badu meriturik. Gehitu behar diogun beste bat, dudarik gabe, euskal herrialde guztiak sartzen saiatzen dela dugu, batere ohizkoa ez dena. Bereziki interesgarria, nahiz eta oso azken ordukoa ez izan, Iparralde eta bere industrialpen ezari buruz egiten duen analisisa. Araba eta Nafarroaren agerraldiak, ordea, urriak dira,

argumentazioen harian Bizkaiak eta Gipuzkoak duten pisuarekin konparatuz behintzat, halabeharrez gertatzen dena batzuei eta besteei buruzko informazio-bolumena kontutan hartzen badugu behintzat. Bestalde, mundu "berri" honen sorreraren iturburuak kaleratzeak badu, gaurregun, bizi dugun desindustrialpen-mementu honetan, erreflexiorako deia izateko aukeraren bat.

Beste aspektu arras erakargarri bat lehenengo industrialpen ahalegin hauek azaltzeko ikuspuntua litzateke, hots, ardatza gizarte-historia izango litzatekeela. Bide hau ez da gehiegitan hartu gure historiografian, eta hala azpimarratzen du egileak berak. Halere badirudi azalpen osotu bat eman baino, hipotesi eta ikerketa berriak bultzatu nahiko litzatekeela. Agirreazkuenagak berak aitortzen duenez euskal industrialpenak planteiatzen dituen zenbait galdera aurkeztu ondoren,

Aldez aurretik azaldu beharra dut gure historiografia urrian erantzun argirik gabeko hainbat hutsune nabari dugula. Horregatik, hemen eskaintzen dudana erantzunaren hastapentzat hartu behar genuke, soluziobide osoaren bukaeratzat baino gehiago. Iraultza industrialaren gizarte-historia nahi nuke burutu azken batez (106 or.).

Honekin zera esan nahi du, euskal industrialpenaren arrakastaren azalpenen artean oso kontutan hartu beharko genukeela, adibidez, aspalditik bigarren arloko ihardueretan "iaioa" zen gizarteak produkzio-antolamendu era berria aurrera eramateko zuen ahalmena.

...nire ustez industrigintza azkarraren sorburua inon aurkitzekotan, euskal gizarteko buruzagien nahian eta dinamikan zein langileen prestakuntza eta ohitura industrialean legoke. Orohar industri lanak ohizko lanak ziren eta gainerakoak faktore koiuntural baino ez ziren (129 or.).

Ez da, noski, Agirreazkuenagak ematen digun erantzun bakarra; bai, ordea, historialariek buruan gero eta gehiago eduki beharko genukeen zerbait. Bere aukera garbia bada ere, eta aipatzen baditu ere, industrialpenaren beste alderdi batzuk gutxiegi tratatzen dituela uste dugu: teknologi bilakaeraren gaia adibide bat litzateke. Industri iraultza martxan jarri zuten kapitalen jatorriaren arazoa (orain arte gai honen inguruan sortu den eztabaida historiografikorik biziena, aniztasuna defendatzen zutenek aspaldi irabazia, bestalde), ordea, ez du ia ukitzen, kontzienteki gainera: alde batetik, gehienbat 1880.eko hamarkadatik aurrerako bultzadan zentratu zelako; bestetik, kapital-beharrak, Ingalaterrako lehen Industri iraultzaren adibideak oso garbi uzten duenez, oso txikiak zirelako prozesuaren hastapenotan.

Gure ustez liburuak baditu, hala ere, akatsak. Neurri batean GAIKAK bildumaren diseinuak eragindakoak izan daitezke, noski, baina egileak badu kulparik. Orokorki oreka falta lepora diezaiokegu. Liburuaren funtsa dibulgazio hutsa baldin bada, trinkoegia da; unibertitate mailako publikoari zuzentzen bazaio, ordea, ez da nahikoa. Jordi Nadalen **El fracaso de la revolución industrial en España** liburu gaindiezinenaren ereduari nolabait jarraituz, han-hemenka iturri zuzenetatik hartutako aipamen

sakabanatuetan oinarritutako esku-liburu edo gidaliburu bat idatzi nahi izan du; testuaren luzera eskasak, ordea, emaitza desorekatzen du (ikus, v. gr., 5.2. ataleko zerrenda luzeegiak, ohar batzuetan kontzentratuak hobeto gera zitezkeenak). Liburuaren laburtasunak, errepikapen batzuk agerietan bihurtzen ditu; gertakizun historikoen ezaguera-maila eskaseko irakurlearentzat, bestalde, azalpen batzuk falta dira.

Bestalde, koadro eta mapekin kontu gehiago eduki behar da, bai dibulgaziora zuzendua badago, bai unibertsitate-eskuliburu bokazioa badu: auto-adierazgarriak izan beharko lukete, obra honetan gehiegitan gertatzen ez den bezala (kasurik argiena, 40-41 orrialdeetan agertzen zaizkigun eskemak: berauen erreferentzia ematen zaigu, baina ez zaizkigu esplikatzen). Batzuetan, gainera, testuan azalpen bezala agertzen zaigun mapa urrunegi bilatu beharra dago.

Beste gai bat bibliografia eta aipamenena litzateke, hein batean, esan bezala, liburuaren diseinu-akatsekin –eta publiko-motarekin– zerikusia izan dezaketenak, baina bere garrantziagatik zainduagoa egon beharko lukeena. Ez ditugu eztabaidatuko oin-oharren abantailak, biziki nahiago ditugularik, baina ez dugu uste gehiegi eskatzea denik obraren bukaeran gutxieneko bibliografi zerrenda bat aurkeztea, bai obra honetan, bai GAIKAK bilduma osatzen duten besteetan. 1. atalean, esate baterako, aipamenak daudela dirudi, baina guk behintzat ez ditugu inon aurkitu; bibliografia aipatzeko erak, bestalde, ez dira homogenoak kapitulu guztietan; beste batzuetan, egileen idazlanen izenburuen erre-

ferentziak falta dira: zatika eraikitako testu baten inpresioa adierazteko arriskutik hurbil dabil. Bibliografia zertxobait zaharkituta dagoela ematen du; gai batzuetarako, adibidez, harrigarria da R. Uriarte, I. Carrión, M. Azurmendi edo I. Mugartegiren liburuaren erreferentziarik ez izatea (hainbat artikulurena aparte utzirik), agian eshaustibotasunaren eta dibulgazioaren arteko *dilemaren* ondorioz.

Aspektu ezezkor hauek alde batera utziz, badaude beste batzuk eztabaidagarriagoak direnak. Hiru kasu aipatuko ditugu, sakontzeko asmorik gabe. Bata ondorioetan agertzen den baieztapen bat litzateke, geure gusturako erradikalergia litzatekeena. Agirreazkuenagaren ustez mendearen azken herenean

Bizkaian ... sortu zen burdingintza konpetitiboak Euskal Herriko beste industriaren sorrera ahalbiderratu zuen. (205 orr.).

Dudarik gabe Itsasadarrean ezarri eta gaur hiltzorian dagoen siderurgia modernoa lagungarri gertatu zen Hegoaldeko beste probintzien eta batipat Gipuzkoaren industriagarapenerako, besterik gabe sortu zituen eskala-ekonomiak kontutan hartzen baditugu. Baina azalpen bezala ximpleegia da eta nolabait kontraesanean sartzen da aurretik azaltzen den argumentazioarekin: XIX. mendearen hasieratik egin ziren “birmoldaketa”-ahaleginak nahikoa antzerakoak izan ziren Bizkaian eta Gipuzkoan, ezaugarri desberdin batzuk bazituzten ere; desberdintasunik handienak 1870-80 ondoren aurkituko ditugu, baina gipuzkoar ereduaren garapena ez genuke bizkaitar “lurruztean” aurkitu behar,

aurretik zetorren bultzadan errotua baizik. Gaia irekia dago, halere: asko ikertu behar da oraindik.

Beste aspektu bat, terminologia aldetik behintzat, *desindustrializazio* hitzaren erabilpena izango litzateke, behin baino gehiagotan azaltzen baita; adibidez, Iparraldeko “industri porrota” aztertzen denean. Eztabaidagarria iruditzen zaigu, hitzaren zehaztasunaren aldetik, beste inongo azalpenik gabe agertzen delako eta komatxo artean ere ez doalako: egile batzuek Agirreazkuenagaren zentzuan erabili izan badute ere, kolokan jarri behar dugu industrialdu ez zen eskualde baten bigarren arloko iharduerako produkzio-mailen galera adierazteko.

Hirugarrena Agirreazkuenagak oso gustukoa duen *Lege Zaharraren* kontzeptua litzateke, erdaratik eratorritako *Antzinako Erregimen* esamoldearen alternatiba bezala. Ez

gara gai honetan sartuko, baina termino honen (eta, zergatik ez, beste batzuen) inguruan euskal eztabaida historiografiko apal bat gertatzea ez litzateke txarra izango (bide batez, Historia hiztegi osotu bat bultzatzeko pistolakada izan daitekeelarik).

Balantze positibo bat egin nahi dugu, halere. Akatsak alde batera utzita, eta aipatu dugu agian askok –ez denak– bildumaren diseinu eta helburuekin dutela zerikusia, liburua erraz irakurtzen da, euskara garbian idatzita dago eta ekonomi estrukturen aldetik gehiegi ezagutzen ez den aldaketa-garai bat erakustendigu, ardatza Industri iraultzaren lehenengo pausuak direlarik; gai honetan, gainera, ikerketa-lerroentzako ideia batzuk ematen saiatzen da, batez ere gizartearen aldaketa-prozesuen eta gizarte-ahalmenaren eraginen aldetik. Beraz, euskal historialariek apalean eduki behar dugun liburu bat, hobeagorik egitea posible bazen ere.

Iban Zaldúa Gonzalez